



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Espediente zk.: 2020IKTZ0008
Azalpena: HHLHko Herri Eskola handitzeko lanen 1. fasea gauzatzeko obra-proiektua idaztea.

ASTIGARRAGAKO HERRI ESKOLA HANDITZEKO LANEN 1. FASEKO OBRA-PROIEKTUA IDAZTEKO ZERBITZUA, TRAMITAZIO ARRUNT ETA PROZEDURA IREKI BIDEZ, KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA

I.- XEDEA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

1. KLAUSULA. KONTRATUAREN XEDEA ETA KALIFIKAZIOA

Kontratuaren xedea da Astigarragako Herri Eskola handitzeko 1. fasearen obra-proiektua – **azterlan geoteknikoa barne** – idazteko zerbitzua ematea. Handitze horrekin egungo eraikin multzoaren nukleoaren mendebaldean 1.600 m²c inguruko eraikin berri bat egingo da (sotoa, beheko solairua eta bi solairu edukiko dituen), eta izango ditu 12 ikasgela, erabilera anitzeko areto bat eta biltegia, baita komunak solairu bakoitzean ere.

Kontratu hau jarraian adierazitako Kodearen arabera kodifikatuta dago; kontratu publikoen Hiztegi komuna onesten duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 zenbakidun Erregelamendua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren kontratu publikoen prozedurei buruzko –CPVaren berrikuspenari dagokionez– 2004/17/Ce eta 2004/18/Ce Zuzentarauak aldatzen dituen Batzordearen 2007ko azaroaren 28ko 213/2008 zenbakidun Erregelamenduan jasotako Europako Kontseiluaren CPV sailkapenaren nomenklaturari dagokiona:

71200000-0 arkitektura-zerbitzuak eta lotutako zerbitzuak
71242000-6 Proiektuak eta diseinuak egitea, aurrekontuak

Gainera, CPA-2008 sailkapen estatistikoaren (451/2008 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2008ko apirilaren 23koa) kode hau dagokio: 71.11.2 eraikinetarako arkitekturako zerbitzu teknikoak

2. KLAUSULA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Definitutako kontratuak zerbitzuen administrazio-kontratuaren kalifikazioa du, Sektore Publikoko eta administrazioko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

(aurrerantzean SPKL) 17. artikulua ezartzen duenez, eta izaera administratiboa SPKLren 25. artikuluen arabera.

Alderdiek esanbidez jarraitu beharko diote agiri honetan eta bere baldintza tekniko partikularretan ezarritakoari, eta, beraz, sinatu egin beharko dituzte, enpresa adjudikaziodunak adostasuna erakusteko. Agirietan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauetan xedatuta dagoenak arautuko du kontratua:

1- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

2- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, sektore publikoko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, Sektore Publikoko Kontratuaren Legeari aurka egiten ez dioten guztian eta Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen xedapen indargabetzaileak ukitzen ez duen guztian.

3 administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

3. KLAUSULA. INFORMAZIOA ETA KONTRATATZAILEAREN PROFILEAN SARTZEKO MODUA.

Lizitazio hau erregulazio harmonizatuari lotuta ez dagoenez, lizitazio-iragarkia Astigarragako Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, Eusko Jaurlaritzaren kontratazio publikoaren plataforman.

SPKLaren 63. artikuluen arabera, ondore horietarako beharrezko dokumentazioaren bitartez kontratu-jarduerarako sarbide publikoa eta gardentasuna ziurtatzeko helburuz, ondoren adierazten den helbidearen bitartez egin daiteke Astigarragako Udalaren kontratatzailearen profilerako sarbideko publikoa:
<http://www.astigarraga.eus/eu/kontratatzailearen-profila->

4. KLAUSULA. JAKINARAZPENAK.

Bitarteko elektronikoak erabiliko dira jakinarazpen eta komunikazioetarako, kontratatzailearen profilean argitaratuta zein lizitatzailerak emandako helbide elektronikora



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

jakinarazpena bidalita, edo jakinarazpen elektronikoz udalaren egoitza elektronikoaren bidez (<http://astigarraga.eus/eu/tramiteak>)

5. KLAUSULA. KONTRATAZIO-ORGANOA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean xedatutakoaren arabera, alkatea da kontratazio-organoa, zeinak gaur egun delegatuta dituen —besteak beste— mota honetako kontratuak tokiko gobernu-batzarrean.

Kontratazio Mahaiak emango dio laguntza kontratazio-organoari, eta egoki irizitako aholkularitza teknikoa izango du.

6. KLAUSULA. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaia honela osatuta egongo da.

- Lehendakaria: alkatea, Xabier Urdangarin Lasa.
- mahaikideak:
 - udal idazkaria. Kontxi Urdampilleta Santamaria
 - udal kontuhartzailea. Amaia Bengoetxea Arrozpide
- Mahaiko idazkaria: idazkaritzako administraria.

Mahaiaren bileretara udal arkitekto teknikoa bertaratuko da, aholkulari lanak egiteko, eta hitza izango du baina botorik ez.

II.- KONTRATUA

7. KLAUSULA. AURREIKUSITAKO BALIOA.

Kontratuaren aurreikusitako balioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 101. artikuluan aurreikusitakoaren arabera ezarri dena, 66.294 euro da (BEZik gabe).

8. KLAUSULA.- LIZITAZIO-AURREKONTUA

Kontratuaren barruko zerbitzu guztietarako gehieneko lizitazio-aurrekontua 66.294 eurokoa (BEZ kanpo), 80.215,74 euro (BEZ barne).



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Aurrekontuaren barruan sartutzat jotzen dira kontratatutako prestazioak normaltasunez betetzeko enpresa esleipendunak egin beharreko gastu guztiak (hala nola gastu orokorrak, finantza-gastuak, etekinak, aseguruak, garraioak eta joan-etorriak, bere teknikarien ordain-sariak, egiaztatze- eta enkargu-gastuak, enbalatze-, ontziratze- eta manipulazio-gastuak, tasak, lizentziak, bisatuak eta era guztietako zergak –udal, probintzia, autonomia erkidego zein estatu mailakoak–, BEZ zergari dagozkionak izan ezik.

Lizitazio-aurrekontua beherantz hobetu ahal izango dute lizitatuzaileek.

9. KLAUSULA.- FINANTZIAZIOA

Kontratu honen zenbatekoari aurre egiteko aski diru dago aurtengo aurrekontuaren kontu-sail hauetan: 1 0600.601.01.323.20 2020 (2519)

10. KLAUSULA.- ORDAINKETA ERA

Ondoren adierazten den moduan ordainduko da zerbitzua:

- % 20, oinarrizko proiektua edo aurreproiektua aurkeztean.
- % 60 egikaritze-proiektua edo obra-proiektua aurkeztean. Proiektu horietan proiektu espezifiko osagarriak sartuko dira, bai eta segurtasun- eta osasun-azterlana eta kalitate-kontrolako programa idaztea ere.
- %20, proiektua onartu ondoren.

Telematikoki aurkeztu behar dira faktura guztiak, eta aurkezten diren egunetik 30 egunera ordainduko dira, zerbitzuari oniritzia eman ondoren.

11. KLAUSULA. KONTRATUAREN IRAUPENA.

Kontratua gauzatzeko epea ezin izango da 18 astetik gorakoa izan, eta honako epe partzial hauek ezarriko dira:

- 4 aste azterlan geoteknikoa eta aurreproiektua edo oinarrizko proiektua aurkezteko
- 14 aste obra-proiektua edo egikaritze-proiektua aurkezteko.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

12. KLAUSULA. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honen izaera dela eta, ezin izango da kontratuaren prezioen berrikuspenik egin kontratuak indarrean dirauen bitartean.

III.- LIZITATZAILEA

13. KLAUSULA. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratu hau esleitzeko aukera izango dute Espainiako edo atzerriko pertsona fisikoek edo juridikoek (bakarka edo enpresaburuen aldi baterako elkarteetan), baldin eta jarduteko erabateko ahalmena badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 72. artikuluan araututako kontratatzeke debekurik ezarri ez bazaie eta Administrazioarekin kontratatzeke eskatzen den kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa dutela egiaztatzen badute, edo behar bezala sailkatuta badaude, ondorengo klausulan ezarritakoaren arabera.

Enpresaburuen Aldi Baterako Elkarteei, euren osaerari eta lizitazioan zehar horiek aldatzeko kasuei dagokienez, 69. artikuluko 8. atalean eta ondorengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

Pertsona juridikoak kontratuen esleipendunak izango dira kontratuen prestazioak fundazio-estatutuen edo fundazio-arauen arabera pertsona juridiko horiek berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barnean bilduta badaude.

Kontralistek, era berean, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko kasuan kasu eska daitekeen gaikuntza enpresarial edo profesionala eduki beharko dute.

Sozietate kontratistak parte hartzen duen enpresa-bategiteen kasuetan, kontratuak indarrean jarraituko du erakunde xurgatzailearekin edo bategitearen emaitzazkoarekin, eta kontratutik eratoritzen diren eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuta geratuko da. Era berean, enpresen edota horien jarduera-adarren banantze, ekarpen edo transmisio kasuetan, kontratuak hura atxiki zaion erakundearekin jarraituko du, eta erakunde hori kontratutik eratorritako eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuta geratuko da, baldin eta gaitasunari eta kontratatzeke debekurik ez izateko baldintzak eta esleipena erabakitzen denean exijitzen den kaudimena betetzen baditu, edota eragiketa horien onuradun diren sozietateak eta, irauten badu, banandutako ondorearen, enpresen edo adarren jatorri den sozietateak, haiekin batera erantzukizun solidarioa bere gain hartzen badu kontratua egikaritzeari dagokionez. Kontratua atxikitzen zaion erakundeak beharrezko kaudimen-baldintzak ez betetzeagatik subrogazioa ezin bada gauzatu, kontratua suntsiarazi egingo da, eta ondorio guztietarako esleipendunaren erruzko suntsiarazpen-kasu bat bezala hartuko da.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Enpresa komunitarioei edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuetakoei eta enpresa ez komunitarioei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

14. KLAUSULA. GAITASUNA ETA KAUDIMENA.

Ondorengo alderdiak egiaztatu beharko dituzte lizitatzailleek:

1.- - Jarduteko gaitasun osoa dutela.

Pertsona juridikoa bada, kontratuaren prestazioak beren estatutuen edo eratzte-arauen arabera berezko dituzten helburu, xede edo jarduera-esparruen barruan sartzen direla.

Espainiarrak ez diren enpresen jarduteko gaitasuna Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan ezarritako moduan egiaztatu beharko da.

2.- Ez dutela betetzen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratatzeko debekua dakarren inguruabarririk.

3.- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela.

4.- Kaudimen ekonomiko eta finantzario eta kaudimen tekniko edo profesional egokia dutela. Aipaturiko kaudimena jarraian aipatzen den dokumentazioaren bitartez egiaztatuko da:

Lizitatzailleek honako gai hauek kreditatu beharko dituzte:

a).- Enpresaburuaren kaudimena ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzea

Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko aseguruia egin dela (gutxienez 300.000 eurokoa) adierazten duen egiaztagiriarren bitartez egiaztatu beharko da; baita kontratuaren egikaritzapen osoan haren estaldura mantenduko dela bermatzen duen berritze edo luzamendua gauzatzeko konpromisoarekin ere

b).- Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea.

1.- Enpresariak azkeneko hiru urteetan egin dituen zerbitzu edo lan nagusien zerrenda aurkeztuko du; zerrenda horretan, lanen zenbatekoak, data eta hartzailea –publikoa edo pribatua– xehatu beharko ditu, eta egiaztatu beharko du obra-proiektu bat idatzi duela denboraldi horretan, 1.350.000 euro edo gehiagoko exekuzio materialeko aurrekontua duena.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatzeko, dagokion organo eskudunak eman edo onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea bada; eta hartzailea subjektu pribatua bada, hark emandako ziurtagiria edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpena eta emandako zerbitzuengatik egindako fakturen kopia aurkeztu beharko dira.

2.- Zerbitzura atxikitzea – gutxienez- 1.350.000 euroko edo gehiagoko exekuzio materialeko aurrekontuko obra-proiektua idatzi duen arkitekturan lizentziadun edo graduatu bat.

15. KLAUSULA. KAUDIMENA KANPOKO BALIABIDEEKIN OSATZEA.

SPKLren 75.1 artikuluaarekin bat etorriz, enpresaburuak beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak balia ditzake, haiekin dituen loturen izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta frogatzen badu kontratuaren egikaritzapen osoan zehar kaudimen eta baliabide horiek efektiboki edukiko dituela, eta baliatzen duen enpresa kontratatzeke debekuaren eraginpean ez badago.

Beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu nahi duten lizitatzailleek hala adierazi beharko dute A gutun-azalean sartu beharreko erantzukizunpeko adierazpenean.

Kasu horretan, erakunde horietako langileek kontratuari atxikitako lantaldeko kide izan beharko dute.

IV.- ESLEITZEKO PROZEDURA

16. KLAUSULA. Esleipenaren tramitazioa eta prozedura

Prozedura ireki arrunt bidez esleituko da kontratua.

Proposamenak baloratzeko eta kontratua esleitzeko, irizpide ugari erabiliko da, kalitate-prezio erlaziorik onenaren arabera. Kalitate-prezio erlazio hori kontratuaren xedearekin zuzenean lotutako irizpide ekonomiko eta kualitatiboaren arabera ebaluatuko da, SPKLaren 145. artikuluaaren eta honako Plegu Administrazioaren edukiaren arabera.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

17. KLAUSULA. PUBLIZITATEA.

Administrazio Publikoen kontratuak esleitzeko lizitazio-iragarkia Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-plataforman kokatuta dagoen Astigarragako Udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da, eta bertan sartzeko 3. klausulan xedatzen dena kontuan izango da.

18. KLAUSULA. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.

Honako irizpide hauek erabiliko dira kontratua esleitzeko:

	ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK:	Puntuak	Zer gutun-azaletan egiaztatzen den
1	Proposamen ekonomikoa	0-49	C gutun-azala
2	Proposamen teknikoa	0-45	B gutun-azala
3	Eskarmentua	0-6	C gutun-azala

1.- Proposamen ekonomikoa: 0-49puntu

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoak puntuatuko dira interpolazio lineala erabiliz, P1 (Baja maximoa, Puntuazio maximoa) eta P2 (Baja zero, Puntuazio minimoa) puntuen artean egindako lerroaren barruan. Honako hauek dira puntuak:

P1 – Eskaintzarik ekonomikoena (Baja maximoa), puntuazio maximoa jasoko duena (Pmax puntu).

P2 – Lizitazio motari dagokio eta puntuazio minimoa emango zaio, formula honen arabera:

$$P_{min} = P_{max} \times (1 - B_{max})$$

(Bmax = Baja maximoa)

Baja (B) da lizitazio mota ken eskaintza ekonomikoa, zati lizitazio mota. Lehen aipatutako lerroa egiteko, onartutako oinarri-eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Hasiera batean, **neurritz kanpokotzat edo ezohikotzat** hartuko dira onartutako eskaintzen prezio guztien neurri aritmetikoa baino txikiagoak diren eskaintzak, 10 unitate baino txikiagoak direnak, eta eskaintzak halakotzat hartzeko, ustez eskaintzaren barruan dauden lizitatzailerak guztiei eskatu beharko zaie informazioa aurretik, baita dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere.

2.- proposamen teknikoa. 0-45 puntu:

Proposamen teknikoan alderdi hauek baloratuko dira:



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

- Soluzio arkitektonikoa egokitzea
- Diseinua ingurunera egokitzea, orubean dauden berriazko baldintzatzaileen arabera.
- Instalazioak eta horien kudeaketa-sistema beharren programara eta eraikinaren arkitekturara egokitzea;
- Eraginkortasun energetikoarekin lotutako alderdiak
- Instalazioak mantentzeko erraztasuna eta ekonomia;

3.- Zerbitzuari atxikitako pertsonaren **esperientzia** (pertsona hori lizitazioan parte hartzeko aurkeztutako l. eranskinean agertzen bada soilik baloratuko da): **0-6 puntu**

- puntu 1 emango da, gutxienez 1.000.000 euroko egikaritze materialeko aurrekontua duen idatzitako obra-proiektua bakoitzeko.
- puntu 1 emango da, gutxienez 500.000 euroko egikaritze materialeko aurrekontua duen idatzitako obra-proiektua bakoitzeko.

* Lan bakoitzeko, adierazitako ataletako baten puntuazioa bakarrik emango da, eta ezin izango da lan bera birritan puntuatu.

19. KLAUSULA.- BERMEAK

Behin-behineko bermea: Lizitazio honetan parte hartzeko, ez da behin-behineko bermea jartzerik eskatzen.

Behin betiko bermea: Kontratu Legearen 107.3 artikuluari jarraikiz, hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko, kontratuaren esleipendunak lizitazio prezioaren % 5eko behin betiko bermea jarri behar du.

Berme hori jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, kontratuaren esleipenaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontaktzen hasita, Udal Diruzaintzan jarri beharko da; eskudirutan jarriko da edo kontratu legearen 108. artikuluan xedatzen den edozein baliabide erabiliz.

Behin betiko bermea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuen arabera izango da. Kontzeptu horien artean bilduta dago kontratistak kontratuaren xede diren prestazioen egikaritze okerraren ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galerak ordaintzeko betebeharra (SPKLren 196. artikuluan aurreikusten dena) ez betetzea.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Kontratu-aldaketaren ondorioz kontratuaren prezioa aldatu egin bada, bermea egokitu egingo da enpresaburuari aldatzeko erabakia jakinarazten zaion egunetik kontaktzen hasita 15 eguneko epean, betiere aldametaren ondoriozko kontratuaren prezio berriarekiko proportzio egokia izan dezan, eta hala egin ezean kontratua suntsiarazteko kausa izan daiteke. Zehapenak edo kalte-ordainketak gauzaten diren datatik zenbatzen hasi eta epe berdinean, esleipendunak bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan, eta hala egin ezean kontratua suntsiarazteko kausa izan daiteke. Horri lotuta, I. Liburuko III. Tituluko II. Kapituluaren adierazitakoaren arabera egiten den prezio-berrikuspen baten ondorioz gertatzen diren prezio-aldaketak ez dira kontuan izango.

Bermeak itzultzeko, kontratu legearen 111 artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan, eta kontratuaren likidazioa onartu ondoren eta bermearen epea igaro ondoren antolatuko da, beti ere erantzukizunik ez badago.

V.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

20. KLAUSULA. PROPOSAMENEN EZAUGARRIAK.

1. Lizitzaile bakoitzak ezingo du aurkeztu proposamen bat baino gehiago. Ezingo du beste batzuekin aldi baterako batuta prestatutako proposamenik ere izenpetu bere aldetik proposamenen bat aurkeztu badu, edo ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan azaldu. Arau horiek urratzen dituen lizitzaileak izenpetutako proposamen guztiak baztertuko dira.
2. Proposamenak aurkezteak berekin dakar plegu honen zein preskripzio teknikoaren pleguaren klausuletan jasotzen den eduki osoa baldintzarik gabe onartzea, inolako salbuespenik edo erresalburik gabe.
3. Ez da onartuko eskaintza argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisioak, hutsak edo ezabaketak dituen proposamenik.

21. KLAUSULA. PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

Proposamenak Udalaren erregistro telematikoan aurkeztuko dira (www.astigarraga.eus), 2021eko urtarrilaren 27ko 13: 30ak arte.

Proposamenak aurkeztuko dira Udalaren erregistro telematikoan (www.astigarraga.eus), lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunaren ondorengo egunetik kontaktzen hasi eta 15 egutegi-eguneko epearen barruan. Ez dira onartuko adierazitako modu, epe eta lekuan aurkezten ez diren proposamenak.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

22. KLAUSULA.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatuzaileek honako dokumentazio honen arabera aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzak:

A GUTUN-AZALA	DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA
B GUTUN-AZALA	PROPOSAMEN TEKNIKOA
C GUTUN-AZALA	ESKAINZA EKONOMIKOA ETA BALIOZKO JUDIZIOEN MENPE EZ DAUDEN IRIZPIDEAK

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko du udaletxeko erregistroan, eta proposamena erregistratzen denean honako hau adierazi beharko da kontzeptuan: HERRI ESKOLA HANDITZEKO OBREN 1. FASEKO PROIEKTUA IDAZTEA

Gutun-azal bakoitzeko dokumentazioa "pdf" dokumentu batean sartu beharko da, eta ireki ahal izateko pasahitz bat ezarri daiteke; kontratazio-mahaiari pasahitz hori adierazi beharko zaiona gutun-azala irekitzeko egintza publikoa hasi baino 5 minutu lehenago.

Ondoren adierazten den dokumentazioa jasoko beharko du gutun-azal bakoitzak:

A. Gutun-azala- Dokumentazio Administratiboa:

1. Kontratazioko europar agiri bakarraren inprimakiaren ereduak beteko duen erantzukizunpeko adierazpena zeina ondoko helbide elektronikoan eskuragarri dagoen <https://ec.europa.eu/tools/espdl/filter?lang=es> edo Plegu honetan jasotzen den erantzukizunpeko adierazpena (I. Eranskina); adierazpen hori sinatuta egon behar da, eta dagokion identifikazioarekin, eta honako hau adierazi behar du lizitatuzaileak:

a. Dagokion sailkapena duela, edo exijitzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela, kontratazioko europar agiri bakarraren inprimaki bakarraren arabera plegu hauek ezartzen dituen baldintzetan.

b.- Pertsona juridikoa bada, sozietatea baliozko moduan eratuta dagoela eta, sozietatearen helburuaren arabera, lizitaziora aurkez daitekeela, eta adierazpenaren sinatzaileak dagokion ordezkagarritasuna duela proposamena aurkezteko.

c. Bere kabuz edo hedapenez kontratatzeko debekurik ez duela SPKLaren 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

2. Zerbitzua egikaritzeko exijitutako gutxieneko lantaldea atxikitze eta kontratua egikaritzeko duten pertsonak izendatzeko (langileen izenak eta prestakuntza zehaztuta) konpromisoa hartzen duela; pertsona horiek kontraturako exijitzen den kaudimena betetzen dutela dioen adierazpena ere aurkeztuko da.

3. Enpresariak, SPKLaren 75. Artikulua araber, beste enpresa batzuen kaudimenera edo bitartekoetara joko balu, horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute (II eranskina), eta adierazpen horietan kasu horietarako beharrezko informazioa jaso beharko da, kontratazioarako europar agiri bakarraren inprimaki normalizatuaren araber.

4.- Jakinarazpenak egiteko posta elektronikoko helbide bat.

5. Hainbat enpresari aldi baterako enpresa-elkarte batean elkartuta aurkezten badira, enpresa-elkarte horietan parte hartzen duen enpresa bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpen bana aurkeztu beharko da, eta adierazpen horietan kasu horietarako kontratazioarako europar agiri bakarraren inprimakian eskatzen den informazioa jaso beharko da (III. Eranskina).

Aurreko paragrafoan aipatutako adierazpenez gain, aldi baterako enpresa-elkarteetan aurkezten diren enpresariak betebeharrak solidarioki bete beharko dituzte, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu bakarra izendatu beharko dute, eskubideak erabiltzeko eta kontratuaren ondoriozko betebeharrak kontratua deuseztatu bitartean betetzeko behar adinako ahalordeak dituen; horrez gain, ahalorde mankomunatuak ere egon daitezke, zenbateko handiko kobrantza eta ordainketetarako eman ditzaketanak. Halaber, enpresa-elkarteak eratzten dutenen izenak eta inguruabarrak, eta horietako bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dute, bai eta kontratuaren esleipendun izanez gero aldi baterako enpresa-elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere.

6. Lehenengo puntuan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenaz gain, atzerriko enpresek adierazpena aurkeztuko dute, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen gorabeheretarako, Espainiako edozein lege-arlotako Epaitegiren eta Auzitegiren jurisdikziopean jartzen direla esanez, eta, hala balegokio, dagokiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginez.

Kontratazio mahaiak frogagiri guztiak eta batzuk aurkez ditzatela eskatu ahal izango die lizitatuzaileei, adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari buruzko arrazoizko zalantzak daudenean, prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa denean eta, nolana ere, kontratua esleitu baino lehen.

Aurreko ataletan aipatutako gaitasunari, kaudimenari eta kontratatze debekurik ez izateari dagozkion inguruabarrak eskaintzak aurkezteko epemugan bete beharko dira, bai eta kontratua formalizatzen den unean ere.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

B gutun-azala.- Proposamen Teknikoa:

Lizitatuzaileek proposamen tekniko bat aurkeztuko dute, ideia gisa aurreikusitako soluzioaren aurrerapena izango dena, kasu honetan 1.352.941 euroko gutxi gorabeherako egikaritzapen-aurrekontua duten obra batzuetarako (1.948.100€, % 13 GO, % 6 EI eta % 21 BEZa barne).

Eskematikoki definituko da proposatzen den soluzio arkitektonikoa (solairu tipok, altxaerak, sekzioak, eta abar), funtsezko moduan aurreratuz materialak, eraikuntza-soluzioak eta instalazioak, eta, kasuan kasu, lizitatuzaileek bereziki esanguratsuak iriztitako eskema eta xehetasunak, proposamenak ulertzeko. Aurkeztutako soluzioak justifikatuko dira.

Azalaren taula bat sartuko da, eta bertan erabilera espezifikoak duten lokal guztien azalera erabilgarriak adieraziko dira.

Horrez gain, aurrezpen eta efizientzia energetikorako lortu nahi diren ekintzak ere jasoko dira, baita lortu nahi den eraikinaren kalifikazio energetikoa ere.

DIN A4 formatuan entregatu behar da proposamen teknikoa, jarraian ezartzen diren ezaugarriekin: zati grafiko bat izango du (4 plano gehienez) eta beste idatzizko zati bat (gehienez 20 orri), proiektua idazteko lizitatuzaileak dituen ideiak adieraziko dituen. Baliteke 21. orrialdetik aurrera emandako informazioa edo edukia ez baloratzea.

Dokumentazioa lantzeko garaian, dokumentazio horri dagokionez (arkitektura, hiri-ezarpena eta instalazioak) udalak aplikatuko dituen eta 18. klausulan zehazten diren balorazio-irizpideak hartu beharko dira kontuan.

Proposamen teknikoan ezin izango da balio-judizioaren mende dauden alderdiak orientatu edo ezagutarazi dezakeen erreferentziarik sartu. Bestela, proposamena prozeduratik kanpo geratuko da.

C gutun-azala: Eskaintza ekonomikoa eta balio-judizioen mende ez dauden irizpideak:

c.1. Proposamen ekonomikoa

Proposamen ekonomikoak IV. eranskinean jasotzen den ereduarekin bat etorri behar du erabat.

Hizkiz eta zenbakiz idatzitako zenbatekoen artean kontraesanik baldin badago, eskaintza baztertu egingo da, baldin eta ezin bada ziurtasunez zehaztu bietako zein den eskaintitako benetako prezioa.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Proposamena enpresa-talde batek egiten duenean, talde hori osatzen duten enpresa guztiek sinatu beharko dute proposamena, zuzenean edo ordezkari bitartez.

c.2.- Balio-judizioen mende ez dauden irizpideak

Atal honetan kontratuari atxikitzen diren langileak antzerako zerbitzuetan esperientzia izatea baloratuko da

Esperientzia egiaztatzeko, bestalde, enpresa kontratatu duen erakundeak emandako ziurtagiria edo zerbitzua egikaritzean egindako fakturak aurkeztu behar dira.

Agiri horiekin batera, esperientzia laburbiltzen duen koadro bat ere aurkeztu beharko da, V. Eranskineko ereduari jarraikiz.

VI.- PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

23. KLAUSULA. PROPOSAMENAK IREKITZEA, AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK BALIOESTEA.

Kontratu hau **PROZEDURA IREKIAREN** bidez esleituko da.

A eta B gutun-azalen dokumentazioaren kalifikazioa

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik gehienez 20 eguneko epearen barruan irekiko dira A eta B gutun-azalak.

Kontratazio-organoak, irekierarako ekitaldi publikoaren data eta ordua argitaratuko ditu kontratatzailearen profilean, dagokion aurrerapenarekin.

A eta B gutun-azalak ireki baino 5 minutu lehenago, dagokion pdf dokumentuaren irekitze-kodea jakinarazi beharko diote Mahaiari eskaintza-egileek, bestela, lizitaziotik kanpo geratuko da.

Pleguen irekitze-egintza horretan, telematikoki jasotako dokumentazioa kalifikatuko da, baita erkatu ere.

Erkatzea gauzatutakoan, A kartazaleko dokumentazioa udal-idazkariari bidaliko zaio, eta B gutunazalekoa, berriz, udal arkitekto teknikoari, dagozkion txostenak jaulkitzeko. Dokumentazioan akats materialak daudela ikusten bada, hiru egutegi-eguneko epea emango da adierazitako akatsa konpontzeko, eta, hala badagokio, bost eguneko epea argibideak edo dokumentu osagarriak aurkezteko.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Epe horiek telematikoki jakinaraziko dira; baita lizitazio honetarako emandako helbide elektronikoan ere; eta bidaltzen diren egunaren ondorengo egunetik aurrera konputatzen hasiko dira.

Horretarako emandako epean enpresak A gutun-azaleko gabeziak osatzeko eskatutako agiriak aurkezten ez baditu, prozesutik baztertuko zaio. B gutun-azalekoak zuzentzen ez baditu, berriz, dagokion irizpidearen araberrako baloraziorik ez zaio egingo lizitatzaille horren eskaintzari.

Eskaintzak ebaluatzerakoan, 18. klausulan adierazitako esleitzeko irizpideak kontuan izango dira.

Proposamen hauek ez dira onartuko.

- A gutun-azalean eskatzen den zinpeko aitortpena behar bezala beteta ez egotea, , eta zuzentzeko udalak emandako 3 lanegunetan, zuzendu ez direnak.
- Kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo arau-hausteak direla-eta Administrazioak eskaintza kontuan hartzeko ezinbestekoa duena garbi ikusteko biderik ematen ez dutenak, eta badira zuzendu edo argitu horretarako udalak ematen dien hiru laneguneko epean.
- Proposamen bat baino gehiago aurkezten duten lizitadoreen eskaintzak.
- Irekitzeko kodea eman ez delako edo kode hori okerra delako ireki ezin direnak ireki.

C gutun-azalean sartutako eskaintzak irekitzeko ekitaldi publikoa.

A eta B gutun-azaleko dokumentuen kalifikazioa eta negoziazio-fasea bukatutakoan, Mahaiak kontratistei deialdia egingo die “Eskaintza ekonomikoa eta balio-judizioei lotu gabeko irizpideak” izeneko C gutun-azala irekitzeko ekitaldi publikora bertaratzeko.

Kontratazio-organoak, behar besteko aurrerapenarekin, kontratatzailearen profileen argitaratuko ditu irekiera-ekitaldi publikoaren eguna eta ordua, eta lizitazioan parte hartzeko emandako helbide elektronikora ere jakinaraziko da.

C gutun-azala ireki baino 5 minutu lehenago eskaintzaileek C gutun-azalari dagokion pdf dokumentuaren irekiera-kodea adierazi beharko diote Mahaiari, bestela, lizitaziotik kanpo geratuko da.

Ekitaldi publikoak ondorengo urrats hauek izango ditu:



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

- Lehenik, A eta B gutun-azaleko ebaluazioaren emaitza jakinaraziko zaie bertaratutakoekin, hau da, lizitatzaileraren bat kanpo gelditu den eta bakoitzak lortutako puntuazioa. Baita negoziatu den lizitatzaileren izena ere.
- Jarraian, kontratuzko-mahaiak C gutun-azalak irekiko ditu, hain zuzen ere, onartuta lizitatzaileren eskaintza ekonomikoa eta baliozkojudizioen menpe ez dauden irizpideak:
- Bilera itxian, kontratuzko mahaiak eskaintzen puntuazioak banatuko ditu, aurrez lan-unitate guztientzako proposamenak jasotzen ez dituzten eskaintzak baztertuz, baita lizitazio prezioa gainditzen dutenek ere. Eta ondoren, esleipen-proposamena luzatuko dio kontratuzko-organoari, kasu honetan, tokiko gobernu batzarrak.

Kontratuzko-organoak edo kontratuzko-mahaiak aurkeztutako eskaintzari buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkio lizitatzaileri, edo, bestela, akats material nabarmenak zuzendu behar ote diren eskaintza idaztean, betiere tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatzen bada eta eskaintzaren terminoak inola ere aldatu ezin badira. Egindako guztia agiri bidez jasoko da administrazio-espeditentean. SPKL, 95)

Kontratuzko-mahaiak egiten duen esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako enpresaburuaren alde, eta ez ditu eskubide horiek eskuratutako administrazioari dagokionez, kontratuzko-organoaren erabakiz kontratua esleitzen ez zaion bitartean.

Esleipena egin baino lehen kontratuzko-organoak kontratua sinatzeari uko egiten badio edota prozeduran atzera egitea erabakitzen badu, lizitatzaileri ebaizpen arrazoitua bidaltzeko jakinarazpenean lizitazio-gastuengatik ordainduko den konpentsazioa adieraziko du.

Adjudikaziodun izateko proposatutako lizitatzaileriak lizitazio-prozedura batean parte hartzeko aurretiko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezten duenean, aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko du Mahaiak, eta konpon daitezkeen akatsak antzematen baditu, hiru eguneko epea emango dio horiek zuzentzeko, eta, hala badagokio, bost eguneko epea emango dio azalpenak edo agiri osagarriak aurkezteko.

Interesdunei komunikazioa telematikoki egingo zaie udalaren egoitza elektronikoaren bidez (<http://astigarraga.eus/eu/tramiteak>), baita lizitazio honetarako emandako helbide elektronikoan ere.

VII.- ESLEIPENA

24. KLAUSULA. ESLEIPENA



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Proposamenak irekitzen diren egunetik kontatzen hasi eta bi hilabeteko gehieneko epearen barruan kontratazio-organoak esleipena erabakiko du, eta lizitatzailerari jakinaraziko zaie eta 15 eguneko epearen barruan kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Esleipenaren ebazpenean kalitate-prezioa erlazioan eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailerari eskatuko zaio dokumentazioa aurkeztea eta ondorengo klausulan adierazitako aurretiazko betekizunak egiazta ditzala, horretarako 10 egun balioduneko epea emanez.

Errekerimendua behar bezala betetzen ez bada, 3 eguneko epea emango zaio dokumentazioa zuzentzeko, ahal bada.

Adierazitako epean ez badu eskatutakoa egoki bete, lizitatzailerak eskaintza lehiaketatik kendu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio (BEZik gabe) zigor gisa.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo lizitatzailerari, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenari jarraikiz.

Kontratazio-organoak lizitazioa esleitzeko deklaratu ahal izango du, hala dagokionean, kontratazio-mahaiaren proposamenez, klausulen agirian biltzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenean bat ez dagoenean.

25. KLAUSULA. AGIRIAK AURKEZTEA ETA ALDEZ AURRETIKO BALDINTZAK EGIAZTATZEA

1. Errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasi eta hamar egun balioduneko epean, ondoren adierazten diren alde zaurretiko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du kalitate-prezio erlazioari dagokionez eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailerak:

- Enpresariaren nortasuna eta haren jarduera-esparrua egiaztatzen dituen dokumentazioa:

- Nortasun Agiri Nazionalaren eta agiri horren fotokopia konpultsatua aurkeztuta egiaztatuko dute beren nortasuna pertsona fisikoek.
- Enpresa pertsona juridikoa balitz, Merkataritza-erregistroan behar bezala inskribatutako eratze- edo aldatze-eskritura aurkeztuta egiaztatu beharko du nortasuna, merkataritza-legeria aplikagarriaren arabera betekizun hori exijitzekoa denean. Betekizun hori exijigarria ez bada, eraketaren edo aldaketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo eraketa-egintza, zeinetan jasotzen baitira jarduera erregulatzeko arauak; beharrezkoa bada, erregistro ofizialean inskribatuak Pertsona juridikoak lizitazio honen esleipendun izan ahalko dira, baldin eta prestazioak jasota baldin badaude beren berezko

helburu, xede edo jarduera-esparru gisa beren estatutu edo eratze-arauetan; alderdi hori egiaztatuta geratu behar da aurkeztutako dokumentazioan.

Aipatutako agirien jatorrizko aleak edo kopia konpultsatuak aurkeztu behar dira, indarrean dagoen legeriaren arabera egiazkotzat jotzen direnak.

- Ordezkaritasuna egiaztatzen duten agiriak, hala badagokio:

- Beste baten ordezkari gisa aurkeztu diren edo proposamenak sinatzen dituztenek, horretarako nahikoa ahalorde dutela egiaztatuko dute.
- Lizitazioaren ordezkari gisa duen pertsonaren datuak; ahalorde bidez egiaztatu beharko da.

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzearen frogagiriak.

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta teknikoa edo profesionala. Lizitazio honi dagokionez, ondoren adierazten direnen bitartez egiaztatuko da aipatutako kaudimena:

a).- Enpresaburuaren kaudimena ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzea

Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena arrisku profesionalengatik erantzukizun zibileko aseguruia egin dela (gutxienez 300.000 eurokoa) adierazten duen egiaztagiraren bitartez egiaztatu beharko da; baita kontratuaren egikaritzapen osoan haren estaldura mantenduko dela bermatzen duen berritze edo luzamendua gauzatzeko konpromisoarekin ere

b).- Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea.

1.- Enpresariak azkeneko hiru urteetan egin dituen zerbitzu edo lan nagusien zerrenda aurkeztuko du; zerrenda horretan, lanen zenbatekoak, data eta hartzailea –publikoa edo pribatua– xehatu beharko ditu, eta egiaztatu beharko du obra-proiektu bat idatzi duela denboraldi horretan, 1.350.000 euro edo gehiagoko exekuzio materialeko aurrekontua duena.

Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatzeke, dagokion organo eskudunak eman edo onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea bada; eta hartzailea subjektu pribatua bada, hark emandako ziurtagiria edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpena eta emandako zerbitzuengatik egindako fakturen kopia aurkeztu beharko dira.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

2.- - Zerbitzura atxikitzen den pertsonaren unibertsitate-tituluaren kopia, bai eta obra-proiektu bat idatzi duela egiaztatzen duen ziurtagiria ere, 1.350.000 euroko edo gehiagoko aurrekontua eduki behar duena.

- Behin betiko bermea eratu izanaren frogagiria
- Atzerriko lizitatzailleek adierazpena aurkeztuko dute, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen gorabeheretarako, Espainiako edozein lege-arlotako Epaitegiren eta Auzitegiren jurisdikziopean jartzen direla esanez, eta, hala balegokio, dagokiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari berariaz uko eginez.

2. Aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak edo omisioak ikusiko balira, lizitatzaileri jakinaraziko litzaioke, eta hiru egun balioduneko gehienezko epea emango litzaioke akats edo omisio horiek kontratuaren arduradunaren aurrean zuzen ditzan.

3. Errekerimendu hori ez bada betetzen dokumentazioa aurkezteko emandako epean, lizitatzailleak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da eta, kasu horretan, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran, hurrengo postuan geratu den lizitatzaillearen dokumentazioa aztertuko da.

26. KLAUSULA. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA.

Kontratua formalizatzen denean burutuko da.

Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehazki egokituko den administrazio-dokumentu batean formalizatu beharko da, eta gainera eskritura publikoan formalizatu ahal izango da kontratistak hala eskatzen badu, sinaduratik eratortzen diren gastuak haren kargura izanik. Kasu horretan, kontratistak Administrazioari aipatu dokumentuaren kopia legitimatu bat eta kopia arrunt bat entregatu beharko dizkio formalizatzen denetik kontatzen hasi eta hilabeteko epearen barruan.

Kontratua formalizatu behar da, beranduenez ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 151. artikuluan aurreikusitako moduan lizitatzailerei esleipenaren jakinarazpena helarazten zaien egunetik zenbatzen hasi eta hamabost egun balioduneko epearen barruan.

SPKLren 153.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua adierazi den epearen barnean formalizatu ez bada, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio (BEZik gabe) zigor gisa, lehenik eta behin betiko bermearen kontura horrelakorik eratu bada, SPKLren 71. artikuluko 2. idatz-zatiaren b) letran ezarritakoa alde batera utzi gabe.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

27. KLAUSULA. UKO ETA ATZERA EGITEA.

Kontratazio-organoak erabakitzen badu esleipen-prozedurari uko egitea edo deialdiaren xede den kontratua ez esleitzea edo egitea erabakitzen badu, erabaki horren berri emango die izangaiei edo lizitatzaillei, bai eta Europako Batzordeari ere.

Kontratua formalizatu aurretik erabaki ahal izango du kontratazio-organoak kontratua ez esleitzea edo egitea, edo prozedurari uko egitea. Kasu horietan, egin dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie lizitazioan parte hartzeko gai diren izangaiei edo lizitatzaillei, baldin eta gastu horiek behar bezala justifikatuta baldin badaude eta, hori horrela izan ezean, Administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko erabiltzen diren balorazio-irizpideen arabera, administrazio-prozedura erkidearen tramiteen bitartez.

Interes publikoko arrazoiengatik bakarrik erabaki ahal izango da kontratua ez esleitzea edo egitea, eta behar bezala justifikatu beharko dira arrazoiok espedientean. Kasu horretan, ezin izango da xede bereko beste lizitaziorik sustatu, baldin eta erabakiaren oinarri gisa alegatutako arrazoiak irauten badute.

Prozedurari uko egiteko erabakia kontratua prestatzeko arauen edo esleipen-prozedura arautzen duten arauen zuzen ezin daitekeen arau-hauste batean oinarrituta egon behar da, eta espedientean justifikatu egin beharko da arrazoa. Prozedurari uko egiteko erabakia hartzeak ez du eragotziko berehala beste lizitazio-prozedura bat hastea.

VI.- KONTRATUA GAUZATZEA

28. KLAUSULA. JARRAIPENA ETA KONTROLA

Kontratazio-mahaiak egingo du prozedura honen jarraipen eta kontrol arrunta. Hala ere, SPKLaren 62. Artikuluaren ondorioetarako, udal arkitekto teknikoa izango da kontratuaren arduradun; hari dagozkio, gainera, ondorengo eginkizunak, hitzartutako prestazioa behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko helburuz:

- a) Kontratuaren xedea betetzerakoan sor litekeen edozein gorabehera konpontzeko beharrezko diren batzarrak sustatzea eta deitzea, interes publikoari ondoen datozkion baldintzetan.
- b) Kontratua egikaritzeko sortutako gorabeherak konpontzea, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren (aurrerantzean, HAKLEO) 97. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki.
- c) Kalte-galerak erreklamatzeko eta behin betiko bermea konfiskatzeko espedienteetan txostenak egitea.
- d) Zerbitzuak partzialki eta/edo osorik jaso aurretik, txostenak egitea.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

- e) Bermeak itzultzeko edo ezerezteko espedientetan, txostenak egitea.
- f) Berme-epareen betetze-mailaren berri ematea.
- g) Kontratua egikaritzeko ezarritako baldintza berezi eta funtsezkoen betetze-mailaren berri ematea.
- h) Kontratututako prestazioak ondo egikaritu izanari buruzko ziurtagiriak emateko txostenak egitea.
- i) Kasu bakoitzean dagozkion ildo nagusiak ezartzea; esleipendunari edozein unetan eskatu ahal izango zaio kontratuaren xedearen egikaritze-egoerari, esleipendunaren betebeharreri eta epeen eta jarduketan betetze-mailari buruzko beharrezko informazioa.
- j) Hitzartutakoa behar bezala garatzea lortzeko edo egoera hori berrezartzeko beharrezko neurriak adostea premiazko beharra dagoenean, edo kontratistak, edo haren mende dauden pertsonak, kontratua behar bezala egikaritzea oztokatzen duten egintzak edo egintzarik ezak egiten dituztenean, horren berri eman beharko zaiolarik kontratazio-organoari.
- k) Prestazioaren egikaritza bertan behera uztea proposatzea eta horren berri ematea.
- l) Zerbitzuak hartzeko egintzetara joatea, eta betetze-mailarekiko adostasuna edo adostasunik eza egiaztatzen duten Harrera-aktak izenpetzea.
- m) Kontratistari jarraibideak ematea, beti ere ez badute kontratuaren xedea aldatzen eta ez badira indarrean dauden xedapenen edo Pleguetako eta gainerako kontratu-agirietako xedapenetatik eratorritakoen aurkakoak.

Gainera, zerbitzua Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Proiektuak Gainbegiratzeko Bulegoaren jarraipenaren eta kontrolaren mende dago.

29. KLAUSULA.- KONTRATUA GAUZATZEA

Zerbitzuaren betearazpena kontratua sinatzean hasiko da.

Kontratuaren betearazpena esleipendunaren ardurapean eta kontura egingo da. Nolanahi ere, zerbitzua agiri honetan estipulatutako klausulei, klausula teknikoen agiriari eta lizitazioan parte hartzeko aurkeztutako proposamenari (eskaintza onartu ondoren) jarraikiz egingo da, baita Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Proiektuak Ikuskatzeko Bulegoak eman ditzakeen irizpideei eta Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta gainerako arauzko xedapenetan ezarritakoari zorrotz jarraikiz.

Enpresa esleipendunak bere bulegoetan edo instalazioetan egin beharko ditu lanak. Lan horiek zerbitzura atxikitako pertsonak egin beharko dituzte – lizitazioan parte hartzeko aurkeztu den A gutun-azalean agertzen direnek –, baina bere agindupeko pertsonekin



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

kontratatu ahal izango ditu, eta beren titulu profesionaletatik edo ezagutza espezifikoa eratorritako eskumenen arabera egingo dituzte jarduerak.

Esleipenduna izango da egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea, bai eta kontratua exekutatzean egindako omisioek, akatsek, metodo desegokiak edo ondorio okerrekin Udalarik eta Eusko Jaurlaritzari edo hirugarrenei dakartzkien ondorioena ere. Horretarako, kontratuak irauten duen bitartean eta berme-epetan, erantzukizun zibileko poliza bat izan beharko du sinatuta, 600,000 eurokoa edo izango duena. Nolanahi ere, kalteen zenbatekoa polizetan aseguratutako kopurua baino handiagoa bada, enpresa edo pertsona esleipendunak bakarrik hartuko du bere gain aldea.

Udalak edota Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Proiektuak Ikuskatzeko Bulegoak edozein unetan eta edozein bitarteko erabiliz kontrolatu, egiaztatu, ikuskatu eta ikuskatu ahal izango dute enpresa esleipendunak zerbitzuak behar bezala betetzen dituela, eta zerbitzuak hobeto egiteko egokitzat jotzen dituzten xedapenak eman ahal izango dituzte.

Enpresa kontratistak ezin izango ditu administrazio horiek egiten dituzten ikuskapen- eta kontrol-lanak oztopatu, eta kontratuaren xedea behar bezala garatzeko eta betetzeko administrazio horiek beharrezkotzat jotzen dituzten zerbitzu profesional guztiak eman beharko dizkio, inolako kostu gehigarririk gabe, bai eta administrazio horietako edozeinek deitutako kontu-bileretara joan ere.

Udalak ez dio kontratistari ordainduko kontratuan zehaztuta ez dagoen edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak aldeztu aurretik baimendu ez duen edozein lan.

Enpresa edo esleipendunak bereziki zainduko du kontratuaren exekuzioari atxikitako teknikariek beren jarduerari baldintza-agirietan, kontratuaren xedean eta aurkeztutako eskaintzan mugatutako jarduerari dagozkion funtzioetan gainditu gabe garatzen dutela.

Esleipendunak eskaintzan izendatutako talde teknikoa (A gutun-azalean dago jasota) izendatu beharko du agiri honetan aipatzen diren lanak egiteko.

Kontratua exekutatu bitartean izendatutako pertsonaren bat ordeztu nahi bada – ezinbesteko arrazoiengatik –, aldeztu aurretik baimena lortu beharko da.

Kontratua gauzatzeko teknikari bat baino gehiago izendatu bada, enpresa esleipendunak koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du, bere langile-plantillakoa; bestela, (hau da, pertsona bakarra atxiki badu) koordinatzaile teknikoaren edo arduradunaren eginkizunak beteko ditu. Arduradun horrek betebeharrak hauek izango ditu, besteak beste:

- a) Enpresa esleipendunaren solaskide gisa jardutea Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Proiektuak Ikuskatzeko Bulegoaren aurrean, alde batetik, enpresa kontratistaren eta lan-taldea osatzen duten langileen



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

eta, bestetik, administrazioen arteko komunikazioa bideratuz, kontratua gauzatzearen ondoriozko gai guztietan.

b) Lana kontratua gauzatzeko ardura duten langileen artean banatzea, eta kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren aginduak eta jarraibideak ematea.

d) Lantaldea osatzen duten langileek esleituta dituzten eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea.

d) Kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldearen osaeran noizbehinka edo modu iraunkorrean gertatzen diren aldaketen berri ematea Administrazioari.

30. KLAUSULA. KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA.

Agiri honetan kontratatzen den zerbitzuaren tipologia dela medio, ez da ikusten kontratua beste edozeini lagatzeko aukera.

Aldiz, hirugarren batzuekin hitzartu ahal izango da kontratuaren zati bat egitea, ezagutza espezifikoak behar dituzten lanak egiteko (instalazioen kalkuluak, egitura-kalkuluak ...), SPKLren 215. artikulua ezarritako xedapenei jarraiki. Nolanahi ere, kontratistak idatziz adierazi beharko dio kontratuaren arduradunari kontratuaren egikaritzea noiz hasi den, azpikontratuak egiteko asmoa duela, azpikontratatzailearen legezko ordezkaria edo ordezkariak nortzuk diren, horien harreman-datuak adieraziz, eta hark egikaritzeko gaitasuna duela behar bezala frogatu beharko du, eta egiaztatu beharko du azpikontratatzaile hura ez dagoela SPKLk aipatzen dituen kontratatzeiko debeku-egoera bakar batean ere.

Era berean, kontratu nagusia betetzeko unean zehar, informazio horrek aldaketaren bat izanez gero, kontratista nagusiak kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko dio, eta baita azpikontratatzailei buruzko beharrezko informazio guztia ere.

31. KLAUSULA. BETEBEHARRAK: LAN-ARLOKOAK, GIZARTE-SEGURANTZAKOAK ETA BEREZIAK.

Kontratistak lanaren eta gizarte-segurantzaren alorrean indarrean dagoen araudia bete behar du nahitaez. Era berean, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, pertsona desgaituen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duena, 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa, 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Araudia, eta kontratua egikaritzen den bitartean promulgatzen diren arauak bete beharko ditu nahitaez.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Betebehar horiek ez betetzearen ondoriozko erantzukizun guztiak kontratistari egotziko zaizkio.

Zerbitzua emateari atxikitako langileak soilik enpresa kontratistaren mende egongo dira; beraz, enplegu-emaile den aldetik, enpresa kontratista izango da enplegu-emaile izateari atxikitako eskubide eta betebeharren erantzule bakar.

Enpresa kontratistak enpresaburu orori atxikitako zuzendaritza-ahalmena benetan, modu eraginkorrean eta etengabe baliatzeko betebeharra hartzen du bere gain, kontratua egikaritzeaz arduratzen den lantaldeko langile guztiei dagokienez. Bereziki, bere betebehar izango dira honako hauek: soldatak negoziatu eta ordaintzea; baimen, lizentzia eta oporrak ematea; bajarik edo absentziarik izanez gero, ordezkioak jartzea; Gizarte Segurantzari dagozkion legezko betebeharrak betetzea, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea ere barnean hartuta, dagokionean; lan-arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak betetzea; diziplina-ahala baliatzea; eta enplegu-emailearen eta enpleguaren arteko kontratu-loturatik ondorioztatutako eskubide eta betebehar guztiak.

Esleipendunak hizkeraren erabilera ez-sexista egin beharko du kontratuaren ondorioz sortu beharreko dokumentazioan eta materialetan, eta emakumea diskriminatzen duten irudiak eta estereotipo sexistak saihestuko ditu eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta eginkizunen eta genero-identitateen aniztasun-irudia sustatuko du.

32. KLAUSULA.- PROIEKTUA AURKEZTEA ETA ENTREGATZEA

Proiektua kontratuaren arduradunaren aurrean aurkeztu eta entregatuko da, eta preskripzio teknikoen pleguan horri buruz ezarritakoaren arabera aginduko da. Udalak, udaleko zerbitzu teknikoen eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Proiektuak Ikuskatzeko Bulegoaren txostenaren arabera, bertan ikusitako akatsak onartu, baztertu edo zuzentzeko eskatuko du. Azken kasu horretan, eta SPKLren 314. artikuluan xedatutakoaren arabera, beste epe bat emango zaio, eta epe hori igarotakoan, Udalak proiektua onartu ahal izango du, akatsak zuzendu edo baztertu badira. Kasuan

Kontratistak atzerapenez egikaritzen badu kontratua, zigorrak ezarri ahal izango dizkio kontratazio-organoak –berehalakoa izango da zigorraren ezarpena–, eta kontratistari ordaindu beharreko ordainketa oso edo partzialen kopuruetatik zigorraren zenbatekoa kenduta egingo da, edo eraturako garantiatik, aipaturako ziurtapenetatik kendu ezin daitekeenean. Egunerokoak izango dira ezarriko diren zigorrak, eta kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euroko proportzioan.

33. KLAUSULA.- LANEN ETA KALTEEN ERANTZUKIZUNA.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

1.- Berme-epa igaro arte, esleipenduna izango da kontratatutako lanen kalitate teknikoaren eta horietan leudekeen akatsen erantzule, berak erantzungo du ere Astigarragako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren aurrean, kontratu eratorrien exekuzioan ez-egite, hutsegite, bide akastunak edo ondorio ez egokiengatik, eta ez da salbuespenik gertatuko edo esleipendunak ez du inolako eskubiderik eskuratuko Astigarraga Lantzen S.A.-ren ordezkariak egikaritze unean gabezia horiek aztertu edo onartu izanagatik, edo zatikako egiaztapenetan, balorazioetan edo egiaztapenetan horiek onartu izanagatik. Hirugarrenei sortutako kalteen ordainaren ardura hartuko du kontratistak.

2.- Lanaren akatsa edo hura gaizki egitea Administrazioak berak emandako agindu baten ondorio zuzena bada, kontratistak ez du erantzukizunik edukiko.

3.- Administrazioak uste badu ez direla kontratuko baldintza teknikoak bete, HAKLAOko 203. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da. Hitzartutako lana ez bada onartzeko modukoa, HAKLAOko 204. artikuluan eta agiri honetako 13.14 klausulan xedatzen dena aplikatuko da.

4.- Zerbitzu kontratuaren xedea obra proiektu bat oso-osorik egitea bada, honako hauek hartu behar dira kontuan:

a) Oro har, obrak burutzean edo ustiatzean proiektuaren akats edo huts materialen ondorioz edo legezko edo arauzko manuak ez betetzearen edo arau hausteen ondorioz Administrazioari edo beste batzuei sortzen zaizkien kalte-galeren erantzulea izango da enpresa kontratista, baldin eta akats eta hutsak berari egotzi behar bazaizkio, eta SPKLko 315.2 artikuluan ezartzen den kalte ordaina eman beharra ezarriko zaio.

b) Proiektuaren akatsak, huts teknikoak, errore materialak, eskasiak eta lege edo arau hausteak zuzentzeko SPKLko 314. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da.

c) Baldin eta, kontratistari egotz dakizkiokeen errakuntza edo ez-egiteengatik, obraren benetako kostua proiektuan ezarritako obra aurrekontutik ehuneko 20 desbideratzen bada, goitik zein behetik, enpresa kontratistak SPKLko 311.2 artikuluan zehazten diren kalte ordainak ordaindu beharko ditu, bidezko espedientea izapidetu ondoren (interesduna entzun beharko da).

34. KLAUSULA.- ZEHAPENAK KONTRATUAREN XEDEA GAIZKI EGITEAGATIK, ZATI BAT EZ EGITEAGATIK ETA ATZERATZEAGATIK.

Kontratuaren xedea gaizki egiten bada, kontratua burutzeko ezarritako konpromisoak edo baldintza bereziak betetzen ez badira edo enpresa kontratistak kontratuan zehazten den prestazioetako baten burutzapen partziala betetzen ez badu berari egotzi ahal zaio arrazoi batengatik, zehapena ezarri ahal izango da, esleipen-prezioaren (BEZik gabe) 55en parekoak.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

35. KLAUSULA.- LANEN JABETZA. JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA.

Egindako lanak, edozein fasetan egiten direla ere, Administrazioaren jabetzakoak izango dira eta, beraz, hark edozein unetan eska dezake prestazioen zati bat eman dakiola, baldin eta behin betiko lan programarekin bat badator eta lanak behar bezala egitea eragozten ez badu.

Jabetza intelektual eta industrial. Berariaz besterik ezarri ezean, jabetza industrialaren edo intelektualaren eskubideak uki ditzaketen lanetan, enpresa adjudikaziodunarena izango da proposatutako ideia dela eta hirugarrenekiko sor daitekeen erantzukizun guztia. Halaber, berak bermatu eta ordainduko ditu jabetza industrialaren edo intelektualaren eraginpean dauden elementuak erabiltzearen kostuak.

Kontratazio honen bitartez administrazio kontratatzaileak sortzen den obraren gaineko jabetza industrialaren eta intelektualaren eskubide guztiak eskuratzen ditu, hain zuzen ere industria aplikazioa edo ustiapen ekonomikoa eragin dezaketen guztiak. Eskubide hauek Administrazioaren esku egongo dira oraingo legerian ezarritako epealdirik luzeenean, harik eta jabari publikora pasatu arte.

Eskubideak modu eskusiboan eskuratu ditu Administrazioak, egungo ustiapen edota euskarri mota guztiak barne direla eta lurralde eremua mundu osoa dela, hau da, munduko herrialde guzti-guztiak. Ondorioz, Administrazioak beretzat gorde ditu lanaren jatorrizko formatua eta hura zabaltzeko, erakusteko edo ustiatzeko nahi adina aldiz kopiatzeko ahalmena. Hain zuzen ere, hauexek dira Administrazioaren jabetza intelektualaren eskubideak: sortutako obra kopiatzeko, banatzeko, jendaurrean emateko eta eraldatzeko eskubideak, eta ustiapen ekonomikoa eragin dezaketen gainerako guztiak.

Enpresa kontratistak eta lanetan parte hartzen duten pertsonak ezin izango dute erabili beren onurarako kontratuaren emaitza, ez hirugarrenei haren zatirik, filiaziorik, testurik, marrazkirik ez argazkirik eman, ez eta haren edukirik, osorik zein partzialki, argitaratu, Administrazioak berariazko baimena idatziz eman ezean. Kasu guztietan enpresa kontratistak edukiko du betebeharrak ez betetzeak eragiten dituen kalte-galeren erantzukizuna. Orobat, kontratuaren xede diren lanen emaitzako materialak Administrazioaren jabetza izango dira.

Kontratuaren xede diren lanetatik ateratzen diren material guztiak ere Administrazioarenak izango dira. Enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du Administrazioak eskatzen dizkion dokumentu guztiak sinatzeko, jabetza industrialeko eta intelektualeko eskubide guztiak eskuratu ahal izateko.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

36. KLAUSULA. UDALAREN ESKUMENAK

Udalari dagozkio hainbat eskumen, hala nola kontratua interpretatzea, kontratuaren betearazpenak eskaintzen dituen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiak direla-eta aldatzea, kontratua egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna deklaratzeko, kontratuaren egikaritzapena etetea, kontratuaren suntsiarazpena erabakitzea eta suntsiarazpen horren ondorioak zehaztea, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako muga barruan eta eskakizun eta ondorioei jarraikiz.

Era berean, kontratua egikaritzen den bitartean kontratistek garatutako jarduerak ikuskatzeko ahalmenak ditu kontratazio-organoak, aipatu Legean kontratu mota bakoitzerako ezarritako moduan eta mugekin.

Aurreko artikuluan ezarritako eskumenei buruzko erabakiak hartzeko gauzatzen diren prozeduretan kontratistari entzunaldia eman beharko zaio.

Hartarako emandako erabakiek administrazio-bidea agortuko dute, eta berehala betearazi beharrekoak izango dira.

37. KLAUSULA.- KONTRATUA ALDATZEA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera, Udalak aldatu ahal izango du kontratua, interes publikoko arrazoiak direla medio, premia berrien edo ezusteko kausen ondorioz, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Kasu horietan, kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat, salbu eta 205. artikuluan kontratua aldatzeari dagokionez jasotako kasuetan. Horrelakoetan nahitaezkoak izango dira, soil-soilik, bakarka edo batera hartuta zenbatekoan eragiten duten aldaketak kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 gainditzen ez badute, BEZa aparte utzita.

38. KLAUSULA.- KONTRATUA SUNTSITZEA.

Kontratua suntsitzeko arrazoi izango dira SPKLaren Testuaren 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak.

Halaber, kontratua suntsitzeko arrazoitzat joko dira honako hauek:

- Kontratuaren xedea behar bezala ez egikaritzea.
- Eskaintzan adierazitako giza baliabideak kontratua gauzatzeko erabiltzeko edo atxikitzeko konpromisoa ez betetzea.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

39. KLAUSULA.- BERME ALDIA ETA BEHIN BETIKO BERMEA ITZULTZEA.

Obra-proiektua idatzi, entregatu eta onartu ondoren amaituko da kontratua.

Kontratuaren xede den prestazioa amaitu eta gehienez ere 30 eguneko epean, prestazioa jasotzeko egintza formal eta positiboa egingo da.

Era berean, 6 hilabeteko epea ezartzen da, harrera formala egiten den egunetik zenbatzen hasita, eta berme gisa ezartzen da SPKLn aurreikusitako ondorioetarako.

Berme-epe horretan, esleipenduna izango da egindako lanetan edo prestazioetan gerta daitezkeen akatsen erantzulea.

Epe horretan Udalak eragozpenik jartzen ez badu, fidantzaren erantzukizuna iraungi egingo da eta fidantza itzuli egingo da.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da SPKLren V. kapituluko 4. atalean xedatutakoa, zerbitzu-kontratuko akatsak eta erantzukizunak zuzentzeari buruzkoa.

40. KLAUSULA.- ESKUMENEKO JURISDIKZIOA

Kontratu honen ondoriozko gai eztabaidatsuak kontratazio-organoak ebatziko ditu, eta hartzen dituen erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari .

Administrazio-bideari amaiera jartzen dioten eta berehala betetzekoak diren egintzak errekurritu egin ahal izango dira, hilabeteko epean berraztetze errekurtsoren bitartez (udalean bertan) edo bi hilabeteko epearen barruan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarrita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako moduan.

Auziren bat egongo balitz, esleipendunak bere foru jurisdikzionalari espreski uko eginez, Gipuzkoako Epaitegi eta Auzitegitara jotzeko konpromezua adierazten du.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

I. eranskina - Erantzukizunpeko adierazpenaren eredia

.....jaunak/andreak, helbidea
eta
zenbakidun NAN agiria duenak, norbere izenean edo
 gisa (adierazi ordezkartzaren ahalmenak;
 administrari bakarra, apoderatua...), helbidea
 eta
zenbakidun IFK duen
enpresaren ordezkari gisa, lizitazioan parte
 hartzeko, Oñatiko Udalaren aurrean,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU, BERE ERANTZUKIZUNPEAN

LEHENENGOA. HERRI ESKOLA HANDITZEKO OBREN 1. FASEKO PROIEKTUA IDAZTEKO ZERBITZUAREN kontratazioan parte hartzera doala

BIGARRENA. 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen espainiar ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duen Sektore Publikoko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140. artikulua lehengo atalak zerbitzu-kontratuaren esleipendun izateko exijitzen dituen aurretiazko eskakizun guztiak betetzen dituela; honako hauek, hain zuzen ere:

- Dagokion sailkapena duela edo exijitzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko eskakizunak betetzen dituela.
- Pertsona juridikoa bada, sozietatea baliozko moduan eratuta dagoela eta, sozietatearen helburuaren arabera, lizitaziora aurkez daitekeela, eta adierazpenaren sinatzaileak dagokion ordezkagarritasuna duela proposamena aurkezteko.
- Ez duela bere kabuz edo hedapenez kontratatzeko debekurik, SPKLaren 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz, eta indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- Atzerriko enpresen kasuan, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen gorabeheretarako, Espainiako edozein lege-arlotako Epaitegiren eta Auzitegiren jurisdikziopean jartzen direla, eta, hala balegokio, lizitatzaillei dagokiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginez.
- Honako hau dela jakinarazpenetarako helbide elektronikoa:



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

HIRUGARRENA. Adierazpen honen bigarren atalean aipatzen diren agiriak badituela eta horiek baliozkoak direla egiaztatzeko konpromisoa hartzen duela, esleipendun gisa proposatzen badute edo horretarako errekerimendua egiten dioten edozein unetan.

LAUGARRENA.- Kontratua egikaritzeko eskatzen den gutxieneko lan-taldea atxikitzeko konpromisoa hartzen dudal, eta horretarako jarraian adierazten den laguna edo diren lagunak izandaten ditudala, eskatzen den kaudimena dutenak:

Izen-abizenak	titulazioa
1.-	
2.-	

Eta hori jasota gera dadin, honako adierazpen hau sinatzen dut.

.....n, ...(e)koren(e)(a)n.

Sinadura (sinadura eta enpresaren zigilua)



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

II. eranskina: Kanpoko baliabideak (A kartazala)

ZINPEKO DEKLARAZIOA, ESKATUTAKO KAUDIMENA EDO BALIABIDEAK BERMATZEKO, LIZITATZAILEAK BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENEAN EDO BALIABIDEETAN OINARRITU NAHI DUEN KASUETARAKO

..... jaunak/andreak, helbidea duenak eta
.....NAN zenbakia daukanak, enpresaren
legezko ordezkari gisa, helbidea duenak eta
..... NAN edo IFZ duenak, adierazten du ASTIGARRAGAKO
UDALAREN lizitazioko baldintzak eta horien ondorio guztiak ezagutzen dituela, **HERRI
ESKOLA HANDITZEKO OBREN 1. FASEKO PROIEKTUA IDAZTEKO** zerbitzuak
kontratatzeari buruzkoak, non [lizitatzaillearen izena] lizitatzaille
moduan lehiatzen den, eta adierazten du badituela eskatutako kaudimena eta baliabideak
–lizitatzaillea esleipendun suertatuz gero frogatu egin beharko du– eta bere borondate
atzerazina adierazten du kontratuaren esleipendun gertatzen bada aipatutako
lizitatzaillearen esku jartzeko kontratua betetzeko beharrezkoak diren baliabideak, Kode
Zibilaren 1.257. artikuluko 2. atalean xedatutakoa esanbidez onartu eta bere ordezkapena
edo aldaketa Astigarragako Udalak esanbidez baimendu beharko duelarik.

Idazki hau Astigarragako Udalaren aurrean aurkezteak konpromiso hori onartzea ekarriko
du, delako lizitatzaillea kontratuaren esleipenduna suertatzen den kasuan.

.....n, ...(e)koren ...(e)(a)n.

Sinadura (sinadura eta enpresaren zigilua)



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

III. ERANSKINA - ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

.....jaunak/andreak, helbidea
eta
zenbakidun NAN agiria duenak, norbere izenean edo
 gisa (adierazi ordezkartzaren ahalmenak;
 administrari bakarra, apoderatua...), helbidea
 eta
zenbakidun IFK duen
enpresaren ordezkari gisa ETA
jaunak/andreak, helbidea
eta
zenbakidun NAN agiria duenak, norbere izenean edo
 gisa (adierazi ordezkartzaren ahalmenak;
 administrari bakarra, apoderatua...), helbidea
 eta
zenbakidun IFK duen
enpresaren ordezkari gisa

HONAKOA ADIERAZTEN DUTE

Aldi Baterako Enpresa-elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela, % ... (e)ko eta % ...(e)ko partaidetzekin hurrenez hurren, eta jauna/andrea izendatzen dutela kontratuaren ondoriozko eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko behar adinako ahalordedun elkartearen ordezkari edo apoderatu bakar, kontratua azkentzen den arte.

Etan(e)koren ...(e)(a)n egiten dugun adierazpen honekiko adostasuna erakusteko

Izp.:

Izp.:

Enpresaren zigilua

Enpresaren zigilua



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

II. eranskina: Proposamen-ekonomikoaren eredia (C gutun-azala)

Nik, jaunak
 (helbidea:
PK:....., NAN:, telefono-
 zenbakia:, eta posta elektronikoko helbidea:)
 prozedura osoa Udalarari jakinarazteko, nire gaitasun juridikoaren eta jarduteko nire
 gaitasunaren jabe oso izanik, nire izenean (edo jauna/andrearen
 PK:....., telefono-zenbakia:, eta NAN edo IFK:
 -bata ala bestea, pertsona fisikoa ala juridikoa izan- ordezkari gisa),
**HERRI ESKOLA HANDITZEKO OBREN 1. FASEKO PROIEKTUA IDAZTEKO
 ZERBITZUA** kontratatzeko Astigarragako Udalak deitu duen lehiaketaren berri izanik,
 honako hau

ADIERAZTEN DUT:

1) Zerbitzu prezio honetan egiteko konpromisoa hartzen dudala:

lizitazio-prezioa (BEZik gabe)	EGITEN DUEN ESKAINZA: PREZIOA BEZik GABE	Baja zifra absolututan	Baja (%)
66.294 euro			

Eskaintza ekonomikoa, BEZik gabeEURO dela

Eskaintza hori lizitazio-prezioari dagokionez, BEZik gabe,euroko baja dela, hots,
%

2- Konpromisoa hartzen dut egindako eskaintzan adierazitako giza baliabideak kontratuaren exekuzioari atxikitzeko, betebeharrak hori funtsezko betebeharra izanik eta onartuz; halaber, konpromisoa hartzen dut egindako eskaintzaren arabera zerbitzu osoa exekutatzeko.

Sinadura



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

V. Eranskina. Eskarmentuaren laburpen taula (C kartazala).

Gutxienez 1.000.000 euroko exekuzio materialerako aurrekontua duten idatzitako obra-proiektuak

Egindako lana	Erakunde kontratatzailea

Gutxienez 500.000 euroko exekuzio materialerako aurrekontua duten idatzitako obra-proiektuak

Egindako lana	Erakunde kontratatzailea

.....n,(e)koren(e)an.

Sin.